



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jose M. Alzuri Vertiz
M. Izaskun Altxu Ariztegi

2017ko abuztuaren 25ean, 13:00ak direnean, Ohizkanpoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. HIRIGINTZA PLANGINTZA.

Iturengo Udalak, 2017ko uztailaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen baldintzen pleguak onestea (administratibo eta ekonomikoak zein preskripzio teknikoak) Iturengo Plan Orokorra egiteko laguntza kontratua esleitzeko, komunitate publizitaterik gabeko eta ohiko izapideko prozedura negoziatuaren bitartez. 4 arkitekto hirigile gonbidatuak izan ostean 2 proposamen hartu ziren abuztuaren 18an amaitutako epean.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 70.2 artikulua hertsiki konplitzeko, beste arkitekto hirigile bat gonbidatzea erabakitzen da aho batez: Carlos Rebollo Arbizu hain zuzen ere.

Eta bertzerik ezean, 13:15 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.